

ERABAKIA, EPAIMAHAIARENA, BIGARREN SAILKAPEN TALDEA, GESTIOKO MAILA ERTAINEKO TEKNIKARIEN KATEGORIAN, GESTIO ESPEZIALITATEAN, LAN KONTRATUDUN LANGILEAK SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUA, 2018KO AZAROAREN 2KO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoen 3. puntu jasotakoarekin bat (UPV/EHUko Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakietan), Bigarren sailkapen taldea, Gestio maila ertaineko teknikarien kategorian, Gestio espezialitatean, lan kontratadun langileak sartzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiak honako hau iragarri du:

LEHENENGOA. – Galderarik ez baliogabetzea.

BIGARRENA.– Oposizio-faseko ariketak zuzentzea, eta txanda irekiko gaitutuen behin-behineko zerrenda egitea, dagozkien kalifikazioen eta puntuazio-hurrenkeraren arabera.

HIRUGARRENA. – Zerrenda horiek EHUko enplegu-atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp?prcs=265) argitaratzea, hautagaiek kontsulta ditzaten.

LAUGARRENA. – Hamar lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezzen, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Halaber, epe horren barruan, gaitututako izangaiek lehiaketa-faseko merezimendu konputagarriak alegatu eta egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio. Oposizio-aldiko behin-behineko emaitzei erreklamazioen bat egiten dietenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dituzte horiekin batera.

BOSTGARRENA. - Adierazi behar da interesdunek eskabidean alegatutako merezimenduen jatorrizko egiaztagiria eta kopia aurkeztu beharko dutela eraketa egiteko, edo, bestela, organo eskudunak behar bezala erkatutako kopia.

Baldintza horietan berberetan aurkeztu beharko dituzte egiaztagiria, kautelaz, oposizio fasea gaitutu ez dutenek, baldin eta errekurtsioa aurkeztu badute eta horrek hasierako fasea gaitutzea ekar badezake.

Bestalde, UPV/EHUK ofizioz aurkeztuko ditu UPV/EHUn zerbitzuak bete dituzten hautagaien egiaztagiria, baldin eta eskari orrian horrela adierazi badute.

Gainontzeko zerbitzuak egiaztatu egin beharko dira egiaztagiri bidez, eranskinean jasotako ereduari jarraituz.

SEIGARRENA. - Dokumentazio hori horretarako gaitutako EHUko erregistroetan aurkeztu ahal izango da. Era berean, eskariak aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren bideak erabiliz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16.4. art.), lege horretako azken xedapenetako zazpigarrenak erregistro elektronikorako ezartzen duen salbuespenarekin (hau da, erregistro elektronikolari dagozkion xedapenak hasiko direla ondorioak sortzen legea indarrean sartu eta bi urteren buruan).

Leioa, 2019ko abenduaren 12 a

Epaimahaiko idazkaria



Ainoa Larrinaga Larrazabal